

IRAGARKIA

54. ALDIZKARIA - 2010eko maiatzaren 3a

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.3. LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZA

ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2010eko martxoaren 29an hartua, Iruñerriko Mankomunitateak sustatutako "Iruñerriko Ibai Parkea handitzeko Udalez gaindiko Plan Sektoriala" onesten duena.

Nafarroako Gobernuak, 2009ko maiatzaren 18an egin bilkuran, Iruñerriko Mankomunitateak aurkeztutako "Iruñerriko Ibai Parkea handitzeko Plana" Udalez gaindiko Plan Sektorial deklaratzearabaki zuen; halaber, espedientea gutxienez hogeita hamar egunez jendaurrean jartzea eta aldi berean Planaren eraginpeko toki entitateei entzunaldia ematea erabaki zuen, Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio prozeduraren ondorioetarako, legez indarra duten determinazioen arabera.

Erabaki hori 2009ko 72. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ekainaren 12an.

Plan Sektorial horren xedea Arga ibaiaren eta bere adarren Ibai Parkearen handitzea arautzea da, ondoko ibai eta tarteak kontuan hartuta:

- 1. tarteak: Ultzama ibaia, Ostitzetik Soraurenen gaur egungo ibai parkearekin lotu arte.
- 2. tarteak: Arga garaia ibaia, Zubiritik Irotzen gaur egungo ibai parkearekin lotu arte.
- 3. tarteak: Urbi ibaia, Uztarrozetik Uharten gaur egungo ibai parkearekin lotu arte.
- 4. tarteak: Sadar ibaia, Zolina/Ezkorizko aintziratik NUPeko Campuseraino.
- 5. tarteak: Elortz ibaia, Dorretik goitiko aldetik Sadar ibaiarekiko elkarguneraino (Nafarroako Unibertsitatearen campusa), Besaire ibaia barne dela Elortz ibaiarekiko elkargunetik Moreako aintziraraino.
- 6. tarteak: Arga behekoa ibaia, Etxarritik Barañainen gaur egungo ibai parkearekin lotu arte.

I.-Aurkeztutako alegazioak.

Jendaurreko aldi 12 alegazio idazki aurkeztu dira. Ondoren azaltzen dira haien edukia eta eman zaizkien erantzunak.

1. José Ruiz de Gaona Álvarez de Eulate jauna eta Pilar Goñi Lizarraga andrea.

Laburpena:

Alegatzaileak Idoi (Esteribar) herriko Zubizar alderdian dagoen finka txiki baten jabeak dira - katastro-identifikazioa aurkezten ez duten arren, ematen dituzten xehetasunetatik ondorioztatzen da Arga ibaiaren ertzean "Kamiopea" izeneko erriparen aurrean daudenetako bat dela-, eta eraikuntzako neurri jakin batzuk proposatzen dituzte (harri-lubeta bat) modu horretan beren finkaren gaineko ukipenak murrizteko, eta, are gehiago, trazaduraren aldaketa; ibilbide alternatiboa planteatzen da, aipatu erripa non dagoen, ibaiertz horretan zehar.

Erantzuna:

UPSean proposatzen den trazadura gutxi gorabeherakoa da, eta obretako proiektuak idazten direnean definituko da. Proiektuak egiteko jasoketa topografikoa eta azterlan geoteknikoa egin beharko dira, eta horiek oinarri hartuta zehazki definituko dira ibai pasealekuaren oinplanoa eta ibai ibilgua zeharkatzen duten gune esanguratsuak (pasabideak). Une horretan zehaztuko da zein den alegatzaileen lurzatiaren gaineko ukipen zehatza, eta horrenbestez, orduan egonen da eskuragarri obrek ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda.

Nolanahi ere, bidezkoa da honako hau adieraztea: Kamiopea izeneko erripan UPSeko ibilbidearen alternatiba gisa beste bat gaitzea, hasieran, ez da konponbide egokia, kontuan hartzen bada bere ibilbidea malda handia duen lurraldean egonen litzatekeela. Izan ere, inguruabar horregatik luzera eta tamaina handiko harri-lubetak jarri beharko lirateke, eta horrela inguruneak ukipen handia jasanen luke.

2. María del Carmen Lázcoz San Martín andrea.

Laburpena:

Alegatzailea Antxoritzen (Esteribar) dagoen finka baten jabea da. Finka hori katastroan honela dago identifikatuta: 5. poligonoko 271. lurzatia. Zera eskatzen du: bere jabetzako finkara eta inguruko beste finka batzuetara sartzeko erabiltzen duen bide publikoa -Done Jakue bidearen tarte bat dena- ibilgailuen trafikorako erabiltzen jarraitu ahal izatea, ibai pasealeku bihurtu arren.

Era berean azaltzen du Esteribarko Udalak Esteribarko Arau Subsidiarioen aldaketa bat onetsi zuela hainbat lurzati -horien artean bere lurzatia- urbanizatzeko. Onespén hori 2005eko 2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 5ean, argitaratu zen. Horregatik eskatzen du inguruabar hori kontuan har dadila eta Udalari kontsulta egin dakiola lurzatiaren hirigintzako kalifikazioari buruz, urbanizatzearen ondorioetarako.

Erantzuna:

Lehenengo eskaerari buruz zera adierazi behar da: UPSean proposatzen den Araudiaren 21. artikuluan -"ibilgailuetarako (motordun ibilgailuak, bizikletak) nahiz oinezkoentzako bidea"- zehazten denaren arabera, dauden bideen artean, ibai parke gisa aprobetxatzen direnetan, indarrean dauden zortasunei eutsiko zaie, kasuan kasu motordun ibilgailuen trafikoari dagokionez.

Bigarren puntuari buruz, zera adierazi behar da: Esteribarko Udalak aipatu aldaketari buruz hartutako erabakia, 2005eko 2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 5ean, argitaratu zena, aldaketa hasieran onesteari eta espediente hilabeteko epean jendaurrean erakusteari buruzkoa da, eta xedatzen da "Espediente hori igortzea Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta

Etxebizitza Departamentuko Hirigintza Planeamendurako Atalera, txosten bat eman dezan Foru Gobernuako Departamentuen eskumenekoak diren gaiez." Ez da inon ere agertzen aipatu espedientearen behin betiko onetsi denik, ezta indarrean jarri denik ere. Nolanahi ere, UPSaren aplikazio-eremua grafikoki definituta agertzen da, eta alegatzaileak bere lurzatiari buruz azaldutako hirigintza arloko gainerako alderdiei buruzko gogoeta egitea Esteribarko Udalari dagokio.

3. Juana Rodríguez García andrea.

Alegazio honen edukia eta María del Carmen Lázcoz San Martín andreak egin duenaren edukia berdinak dira. Beraz, bidezkoa da alegazio honetarako erantzun berdina igortzea.

4. Mikaela Cervantes Vizcay andrea.

Laburpena:

Alegatzailea Altzuza eta Gorraitz izeneko mugapean artean (Eguesibar) Aldabarren izeneko alderdian dagoen finka baten jabea da. Katastroko identifikazioa Eguesko katastroko 1. poligonoko 260. lurzatia eta 13. poligonoko 39. lurzatia da. Alegatzailearen iritziz, finkaren azaleraren heren bat UPSaren eraginpean dago.

Lehenengoz adierazten du "finkaren azalera, jabetza-tituluaren arabera, 42.070 m²-koa dela", eta "adierazitako katastroko bi lurzatiaren azaleraren batura 40.047,14 m²dela"; beraz, katastroko datuetan jabetzako tituluekin alderatuta 2.022,86 m²-ko defizita dago.

Gero zera argudiatzen du: ibai pasealekua diseinatzean Urbi ibaiaren meandroak -bere finkaren ipar-ekialdeko ertzean daudenak- saihesten dira. Horrela sortzen diren ingurumen-integrazio espazioak pasealekuaren trazadura "ekonomiazalea" aukeratzen delako justifikatzen dira, ez beste ezergatik. Jolasaren eta aisialdiaren interesak lehenesten dira haren "modus vivendi" delakoan laguntzen duen lurzatiaren nekazaritza ustiapenaren gainetik. Alegatzailearen iritziz, hori onargarria izanen litzateke soilik finkaren hego-ekialdeko muturrean dagoen meandroan, hango estugunea kontuan hartuta.

Jarraian, alegatzaileak bere finkari 2008ko uztailaren 3an hasieran onetsitako Eguesibarko Udal Plan Orokorren arabera aplikatzen ahal zaizkion hirigintzako baldintzen berri ematen du. Plan horren bidez, bere finka lurzoru urbanizagarriko 4. Banaketa Eremuaren barnean geratuko litzateke. Halaber, adierazten du aipatu Planean Urbi ibaiaren inguruan berdeguneak daudela aurreikusita, eta aurreikuspen hori gauzatuz gero UPSaren paisaia arloko eta ingurumen arloko helburuak indartuko direla. Dena dela, antzekotasun hori ez dator bat okupatutako azaleraren etekin ekonomikoarekin, "hiri lurzoru gisa edo Parkearen okupazio gisa" kudeatzen denean.

Aurreko horren ondorioz, alegatzaileak eskatzen du aurreikusitako pasealekuaren trazadura ibaiaren ibilguaren ondo-ondoan koka dadila eta etorkizuneko NA-150 errepidearen bikoiztearen paraleloan ibil dadila, lehenago aipatutako berdeguneen aurreikuspena kontuan hartuta; eta gainera, katastroan agertzen ez diren 2.022 m² -finkaren hego-ekialdeko muturrean dagoen meandroan daudenak- lurzatiaren okupaziotzat har daitezela eskatzen du.

Erantzuna:

Mankomunitateak jakinarazi du ibai pasealekuaren trazadura Eguesibarko udal mugapean Udal horren hirigintzako planeamenduaren idazketarekin koordinatuta definitu zela.

Hain zuzen ere, kasu honetarako aztertu da Eguesibarko Udalak 2008ko uztailearen 3an hasieran onetsitako Eguesibarko Udal Plana osatzen duen dokumentazioa -Plan hori, nolahi ere, ez da oraindik behin betiko onetsi-. Ondorioz, egiaztatu da alegatzailearen lurzoruak lurzoru urbanizagarri sektoretako 4. Banaketa Eremuan egonen liratekeela, eta lurzoru horietako zati bat "espazio libreen sistema orokor" baten (AR-04ko sg-2) eraginpean egonen litzatekeela -bestalde, kalifikazio hori eta UPSak ibai parkerako proposatzen duena berdin-berdinak dira-. Sistema horren mugek Urbi ibaiaren meandroen bidea eteten dute UPSean aurreikusitako ibai pasealekuak baino modu zorrotzagoan, ipar-mendebaldeko muturrean izan ezik, han pasealekua mendebalderantz zabaltzen baita NA-150 errepidea errazago zeharkatzeko. Datu horiek kontuan hartuta, proposatutako trazaduraren aldaketa bidezkoa ez dela uste da; nolahi ere, bidezkoa litzateke pasealekuaren trazadura ahal den eta arrazoizkoa den neurrian ibairantz nahiz NA-150 errepiderantz ahalik eta gehien hurbiltzea. Hala ere, Herri Lan Departamentuak maila diferenteko bidegurutzea diseinatzea eskatzen du, Foru Komunitatearen intereseko errepidea delako, egun bakoitzeko 9.500 ibilgailuko IMDarekin; hala eginez gero, lurzoru-erreserba beharko da, kautelaz, UPSean agertzen denaren antzeko kopurukoa. Ingurumen eraginaren adierazpenak inguruabar horri buruz adierazten duenez, "ingurumenaren ikuspuntutik egokia da pasealekuaren trazadura ibilbide osoan ibai ibilguaren paraleloan eta ibilgu horretatik hurbil ez joatea eta tarte jakin batzuetan urruntzea, horrela ibai-lurraldea landaredi naturalarekin handitzeko espazioak sortuko baitira, UPSean diseinatu den bezala, alderdi horretan meandroak laburtuz".

Nolahi ere, aurreko gai horiek guztiak aztertzen ahalko dira pasealekuaren eraikuntza proiektua egitean. Une horretan bertan zehazten ahalko da alegatzailearen lurzatiaren gaineko ukipena, kontuan hartuta lurzati hori bere garaian jendaurrean azaldu beharreko obraren exekuzio proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrendan txertatu beharko dela.

Esandakoaren osagarri gisa, honako hau adierazi beharko litzateke: une honetan Eguesen indarrean dagoen hirigintzako araudiak alegatzailearen finka "populaziogunearen inguruko lurzoru urbanizaezin" gisa ("gorde beharreko lurzoru urbanizaezina" delakoarekin pareka daitekeena) sailkatzen du, eta lehenago aipatu diren hirigintzako aurreikuspenak berresten badira, bidezkoa izanez gero onetsiko litzatekeen Udal Planean ibai parkeak ukitutako lurzoruak "04 banaketa eremuari atxikitako sistema orokorra" izenekoaren osagai gisa (AR-04ri atxikitako sg-2-a) identifikatzen ahalko lirateke. Horrela, UPSaren araudiaren 16. artikuluan proposatzen denaren arabera, lurzoru urbanizagarri horretako jarduketa sistema "planeamendu orokorrak edo sektore bakoitzerako onetsitako garapen-planeamenduak ezarritakoa" izanen litzateke; ibai parkeak ukitzen duen finkaren zatiak lurzoru urbanizaezinaren sailkapena mantentzen badu, artikulua horren arabera jarduketa sistema kasu horretan "desjabetzapena" izanen litzateke.

5. Manuel Romero Pardo jauna, Aranguren ibarreko Udalaren ordezkari gisa.

Laburpena:

Aranguren ibarreko Udalak azaltzen duenez, UPSa Zolinako aintzira barnean dela onesteak ez dakar aurreko aurreikuspenetik inolako eraketarik, azkenean ez baitzen UPSrik onetsi, eta orain inork ez dauka zalantzarik bere garaian "Zolinako hiri bioklimatikoa" izenekoari buruz planteatu zen proposamenaren bideraezintasunari buruz.

Hori esanda, Aranguren ibarreko Udalak Zolinako aintzira Iruñerriko Ibai Parkean txerta dadila eskatu du. Horretarako, aintziraren garrantzi ekologikoari buruzko dokumentazioa (aintziran

dauden hegazti-espezieen zerrenda) aurkezten du, eta Zolinako aintzira Ibai Parkearekin lotzeko zuzentarau gisa, Ibai Parkearen konexioa aintzira babesteko perimetroko zerrendan amaitzea proposatzen du, horrela oinezkoak orokorrean ertzeraino bertaraino helduko ez direlakoan.

Erantzuna:

"Iruñerriko Ibai Parkea handitzeko Plana" Udalez gaindiko Plan Sektorial deklaratzeko duen Gobernuaren 2009ko maiatzaren 18ko Erabakiaren azalpen zatian bere garaian Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentu zenak sustatutako "Zolinako Hiri Bioklimatikoaren Plana" aipatzen da. Ekimen horren ondorioz, 1999an Nafarroako Gobernuak hainbat erabaki hartu zuen, baina UPS deklaraturako Plan hori ez zen behin betiko onetsi. Jarraian azaltzen denez, Iruñerriko Ibai Parkea handitzeko UPSa formulatuta zegoen moduan onetsi balitz, Zolinako Hiri Bioklimatikoaren UPSean agertzen diren hasierako aurreikuspenei uko egin beharko zitzaiekeen. Horretatik guztitik ondorioztatzen da Ibai Parkearen espedientearen ebazpenean Zolina/Ezkorizko aintzira Ibai Parkea handitzeko UPSetik baztertzen den ala ez erabakitzea beharrezkoa dela, uste baita baztertzea erabakiz gero Ibai Parkearen oinarritzko helburu eta proposamenek ez luketela inolako kalterik jasanen.

Bada, hamaika urte igaro dira aipatu den "Zolinako Hiri Bioklimatikoaren Plana" tramitatzen hasi zenetik. Plan horren helburu nagusia bizitegi-gune bioklimatikoa ezartzea zen, eta horrekin batera, "Ezkorizko aintzira (Zolinako aintzira izenez ezagutzen dena) alderdi ekologikoan lehengoratzea eta aintzirari balioa ematea" -aintzira hori gazitu egin baitzen, Potasas enpresak egindako industria-jardueren barnean zegoelako-. Beste helburu horrek epe zehaztugabeen baliabide tekniko eta ekonomikoetan inbertsio-ahalegina egitea eskatzen du, eta epea hain zehaztugabea da non gaur egun ekimen horren interesak eta bideragarritasunak behera egin duten. Beraz, bidezkoa da "Zolinako Hiri Bioklimatikoaren Plana" delakoaren inguruan hasitako prozedurak ixtea eta espedientea artxibatzea.

Beraz, aurreko gaia ebatzi ondoren, bidezkoa da orain Ibai Parkea handitzeko UPSak Zolinako aintzirari buruz egiten duen proposamena aipatzea. Horri buruz, Mankomunitateak jakinarazi duenez, Zolinako aintzira UPSean sartu da aintzira horretan bereziki emigrazio aldiaren aterpea hartzen duen hegazti-faunari buruzko interesagatik, eta horregatik Sadar ibaiaren bi ertzetatik ibiliko den pasealekuarekin lotu beharreko lekua dela uste da. Mankomunitateak ondorioztatzen duenez, bertan dagoena finkatu eta antolatzeke asmoa dago, aintziraren inguruko gaur egungo zidorretan pasealekua burutzea eta aintziraren perimetroan bi jostetagine eraikitzea hegaztiak behatzeko.

Hala ere, aintzirak ornitologia arloan duen interesari buruz eman diren arrazoiak -sustatzailea aintzira hori UPSean sartzera bultzatu duten arrazoiak- onargarritzat jo arren, egindako proposamena birdoitu egin behar da honako bi alderdi hauek kontuan hartuta:

-Lehenengo alderdia, Posusak egindako alegazioaren edukiaren ondoriozkoa da -gero azalduko da alegazio hori-. Alegazio horren bidez Posusak Zolinako aintzira UPSetik bazter dadila eskatzen da, enpresa horrek egiten dituen industria-jarduerak direla-eta, jarduera horiek ez baitira eragotzi behar.

-Bigarren alderdia, UPSaren eremuaren barnean dagoen "aintziraren" lurzoruek ukitutako azalerari buruzkoa da. 835.000 m² inguruko azalera da -"lohien" geruzari dagokion azalera zenbatu gabe-

desjabetu beharko litzateke, Ibai Parkea "erabilera eta titulartasun publikoko dotazioa" delako eta bere eremu osoa "Sistema orokor" gisa kalifikatzen delako (UPSaren Araudiaren 11. artikulua). Izan ere, lurzoru urbanizaezineko lurzoruak eskuratzeko, desjabetzapena aurreikusi da. Azalera hori industria-jarduera berezi batekin lotuta dago, eta badirudi horrelako azalera bat desjabetzea ez dela oso komenigarria.

Horrenbestez, aurrekoa ikusita, hau da bidezkoa:

a) "Zolinako Hiri Bioklimatikoaren Plana" delakoari buruzko espedientea artxibatzea eta horri buruzko jarduketa guztiak amaituta daudela adieraztea.

b) Ibai Parkearen 4. tartearen ekialdeko muga AR-12 jostetagusuna dela zehaztea. Gune hori Ibai Parkea orain arte Parkearen esparrutik kanpo egon diren eta gune horretatik bertatik hasita aintziraren ingurunean zehar ibiltzen diren bide publikoen sistemarekin -bereziki Milagrotik Aezkoarako Errege Altxonbidearekin- lotzeko lekua izanen da.

c) Ondorioz, UPSaren esparrutik kanpo uztea "Zolinako aintziraren" esparrua -esparru hori AR-12 jostetagusunarekin lotzeko bidea barne dela-, AR-10 eta AR-11 jostetagusunei dagozkien azalerak bazter utzita, horiek Zolinako aintziran dauden hegaztiak behatzeko gune gisa mantenduko dira-eta. Dena dela, AR-11 benetan ezarriko da -birkokatu egin beharko da, lehenago aipatu den Errege Altxonbideak okupatzen duen espazioan dagoelako- baldin eta txirrindulariak eta oinezkoak bertara iristeko behar bezalako baldintzak badaude (AR-10erako sarbidea, hasieran, Badostainen hasten den bide publikoa izanen da).

Determinazio horien ondorioak hauek dira: oraingoz, "Zolinako Hiri Bioklimatikoa" izenekoaren espedientea artxibatzea, eta beste alde batetik, gunearen gaur egungo baldintza eta erabilera mantentzea; beraz, aldatu gabe geratuko da Zolinako aintziran hainbat hegazti-espezie agertzeko aukera eman duen ingurunea, eremu horri alegatzaileak argudiatzen duen ornitologia-balioa eman diona. Era berean, eremu horrek gutxienez hegaztiak behatzeko espazioa izanen luke, eta horrek guztiak gunean agertzen diren mota guztietako interesak uztartuko lituzke.

6. José M.^a Montes Ros jauna eta Miguel Iriso Lerga jauna, Potasas de Subiza, S.A. (POSUSA) merkataritza konpainiaren izenean eta hura ordezkatzuz

Laburpena:

Enpresak Zolinako aintzira Iruñerriko Ibai Parketik kentzeko eskatzen du, erauzketako hondakinen (lokatzen) meatze arloko instalazio horretan diseinatuko diren jarduerak (berrerabiltzea, lehengoratzeta edo isurketa gehiago egitea) UPSren proposamenekin bateraezinak izaten ahal direlako, eta gainera, bisitari gehiago bertara sartu ahal izateak arrisku handiagoa ekarriko lukeelako, instalazioaren beraren tamaina eta ezaugarri arriskutsu bereziak kontuan hartuta.

Erantzuna:

Alegazio honi erantzuna emateko, Manuel Romero Pardo jaunak Aranguren Ibarreko Udalaren ordezkari gisa egindako alegazioari lotuko gaitzaizkio.

7. Jose Javier Erro Larrea jauna, Etxauriko Udalaren ordezkari gisa.

Laburpena:

Valdizarbe zentral hidroelektrikoa elikatzeke ubidearen paraleloan ibiltzen den bidean bide zortasuna Valdizarbe konpainia elektrikoaren alde finkatzeko eskatzen du, dagoen sare elektrikoa mantentzeko.

Aurreikusitako zidorren sarea ahal den neurrian lehendik dauden bideetatik ibil dadila proposatzen du.

Putzu handiaren tartean aurreikusita dagoen trazadura aldatzeko eskatzen du, horretarako 2. poligonoko 125. lurzatiaren mendebaldean dagoen jabetza publikoko bidea aprobetxatuta.

Etxaurin proposatutako jostetagusia jabetza pribatuko 2. poligonoko 122. lurzatian, gaur egun eraispin-espedientea duen lurzati horretan koka dadila proposatzen du, eta Udala eraispin gastuez arduratzen den bitartean Nafarroako Gobernuak desjabetzapen gastuez ardura dadila.

Pasealekua Ugalzabaleko bide publikoan zehar Etxauriko hiriguneraino luzatzeko eskatzen du.

Parkeak erabiltzen dituen bideak -lehendik daudenak- lurzatiak jabe eta laborarien nekazaritzako makinekin konpartitu beharko direla ezarri beharko da, bide horiek lurzati horietarako sarbidea ematen baitute.

Erantzuna:

Lehenengo eskaerari buruz zera adierazi behar da: UPSean proposatzen den Araudiaren 21. artikuluan zehazten denaren arabera, "ibilgailuetarako (motordun ibilgailuak, bizikletak) nahiz oinezkoentzako bidea", dauden bideen artean, ibai parke gisa aprobetxatzen direnetan -adibidez, Valdizarbe zentral hidroelektrikoaren ubidearen ondoan dagoen bide publikoa-, indarrean dauden zortasunei eutsiko zaie, kasuan kasu motordun ibilgailuen trafikoari dagokionez.

Dauden bideak aprobetxatuz zidorraren trazadura aldatzeko proposamenari dagokionez, hori onestea bidezkoa dela uste da.

Ibai parkea 2. poligonoko 125. lurzatiaren mendebaldetik ibiltzeko proposamenari dagokionez, eta dauden malda handiak alderdi topografikoan egiaztatu ondoren, trazadura hori aukeratzea bidezkoa ez dela uste da, dakarren arrisku handiagatik, eta kontuan hartu den finkaren ekialdeko sektoretik -herrilurrak aprobetxatuta- igarotzea proposatzen da.

Gobernuak 2. poligonoko 122. lurzatiak desjabetzeari eta bertan aurreikusitako jostetagusia kokatzeari buruzko planteamenduari dagokionez, Administrazio jardulea Iruñerriko Mankomunitatea izateak horrekin zerikusirik ez duela, Mankomunitateak berak argitu du alegazio horri buruz egin duen txostenaren arabera honako hau ondorioztatu behar dela: proiektuak idazten direnean eta, horrenbestez, obrek ukitutako ondasun eta eskubideen deskribapena eskura dagoenean, orduan planteatzen ahalko da aurreikusitako jostetagunerako erabili beharreko lurzoruak eskuratzeko aukerarik onena. Ibai Parkearen proiektuan gune horretan berariazko jarduketa egingen da. Jarduketa horrek barnean hartuko ditu garbitokia eta putzu handitik datorren ur ibilgua, eta Etxauriko Udalak lagatako lurzoruak eskura dauden unean exekutatu da. Gune horretan ontziraleku bat jartzea ere planteatu da, Arga behearenean tarte nabigagarri hori errazago erabili ahal izateko.

Ibai pasealekua eta Etxauriko herrigunea Ugalzabaleko bide publikoan zehar lotzeko iradokizuna onargarria dela uste da.

Lehenengo idatz-zatian adierazi den bezala, UPSaren araudiaren 21. artikulua arabera, aipatu bideak motordun ibilgailuen trafikorako nahiz oinezkoentzako eta , bizikletentzako bidetzat hartuko dira, eta nekazaritzako ibilgailu eta makinek nahiz mota guztietako azpiegituren mantentze-lanetarako ibilgailuek bideak erabil ditzatela onartuko da.

8. Alfredo Izco Rezusta jauna, Zabaltzako Udalaren ordezkari gisa.

Laburpena:

Zabaltzako Udalak, Memoriaren 10.4.3 puntua -"Jarduketa Sistema"- eta UPSerako proposatutako Araudiaren 3. artikulua -"Administrazio Jardulea"- aipatu ondoren, zera azaltzen du: Udalak ez du bere kabuz sustatu Ibai Parkea handitzeko proiektuan parte hartzea; aitzitik, Mankomunitateari trazadura beren udal mugapetik aldentzeko eta trazadura alternatibo bat bilatzeko eskatu zioten.

Halaber, azaltzen du Udalaren lehentasunezko helburua gaur egun betetzen ez diren eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 26. artikulua eskatzen dituen gutxieneko zerbitzuak behar bezala ematea dela, eta ez dagoela prest Ibai Parkea egitean eta kudeatzean laguntza ekonomikoa emateko.

Erantzuna:

Mankomunitateak jakinarazi du bere asmoa proiektua bere jardueren eremuaren barnean dauden udalerriekin adostea dela, eta arrazoi horregatik bilera batzuk egin dituela Zabaltzako Udalarekin, beste trazadura bat prestatzeko, udalerriaren interesetarako egokiena den trazadura, ingurumen eragin txikiena duena eta arrazoizko mantentze-lana dakarrena, urak hartzen ahal duen gune bat zeharkatuko duela kontuan hartuta. Ingurumen txostenak eta Ebroko Ur Konfederazioaren txostenak izanen dira trazadura ezartzeko erabakigarriak. Gero, jasoketa topografikoak kontuan hartuta, behin betiko trazadura erabakiko da, proiektuaren eraginpean dauden ondasun eta eskubideen gaineko eraginak murrizteko.

Mankomunitateak planteatzen duena da, udalerriek obraren finantzaketan eta gerora Parkearen kudeaketan parte hartu behar ez izatea. Lurzoruen eskuraketa eta obraren finantzaketa, administrazio jardulearen kargupean egingen dira, hau da, Mankomunitatearen beraren kargupean. Hain zuzen ere, bidezkoa bada, Mankomunitateak horretarako beste erakunde publiko batzuen partaidetza eta laguntza izanen ditu.

9. José A. Andía jauna, Eguesibarko Udalaren ordezkari gisa.

Laburpena:

Ibai Parkea handitzean kontuan hartzea Olazko hirigunearen konexioa baratzeetako bidearen bitartez (450 m), Uhartan Zokoa pasabidearen parean dagoen jostetaguseneraino.

Ibiriku-Egues eta Egues-Gorraitz arteko nekazaritza bideetatik proposatzen diren ibilbideak ezestea, eta ibilbide horien ordeztu Urbi ibaiaren ibilguaren ondotik joanen den ibilbidea jartzea, ahal den neurrian Iratiko trenbide zaharraren trazadura aprobetxatuta.

Erantzuna:

Onartzen da Olaztik ibai ondoko pasealekuraino doan tartea, Uhartan Arga ibaiaren paretik doana, proiektuan sartzeari buruzko alegazioa. Bide horrekin, lehendik dagoen pasealekua Itaroarantz eta Gorraitzerantz zabalduko da.

Onargarritzat jotzen da UPSean Egues eta Gorraitz artean proposatzen den tartea ezesteari buruzko alegazioa, eta horrenbestez, tarte hori moldatu eta Urbi ibaiaren ibilguaren ondotik joanen den ibilbidea jarriko da. Ibirikutik Egueserainoko tarteari dagokionez adierazi behar da Ingurumen eraginaren adierazpenean zera azaltzen dela: "ingurumenaren ikuspuntutik (eta bereziki ibarbasoko faunarentzat) egokiagoa da UPSaren proposamenari eustea eta lehendik dagoen bidea erabiltzea".

Trazadura ezin izanen da zehaztu proiektuak egiteko beharrezkoak diren datu topografikoak eta geoteknikoak eskura ez dauden arte.

10. Javier Basterra jauna, Uharteko Udalaren ordezkari gisa.

Laburpena:

1. 3.2 planoak ("Informazioa. Uholdearen kurbak, 3. tartea: Urbi ibaia, 02/02 orrian") falta da.

2. 4.2 planoan ("Proposamena. Oinplano Orokorra. 3. tartea: Urbi ibaia, 01/02 orrian") PN-5 pasagunea planteatzen da PA-30ean, Uharte udalerriko Ollokilanda Urbin. Bidea oinez zeharkatzea oso arriskutsua izan daitekeenez, alegatzaileak gaineko pasabidea eraikitzeke eskatzen du.

3. 5.3 planoan ("Lurzoruaren Kalifikazioa. 3. tartea. Urbi ibaia, 01/03 orrian", gaur egun Uharteko planeamenduak "Dotazioetako gunea. Ekipamenduak eta zerbitzuak" gisa sailkatzen duen lurzorian berdegunea ezartzen da. Ollokilanda-Urbiko HAPOaren aldaketaren determinazio egituratzaileetako bat da eta Ollokiren eta Uharteren Ollokilanda-Urbiko Plan Partzialean lagapen gisa sortu da. Hortaz, alegatzaileak Iruñerriko Ibai Parkea handitzeko UPSean aipatu berdegunea kentzeko eskatu du.

4. Errorea dago Aldabarren izeneko alderdian aurreikusitako bide-azpiegituraren trazaduran, 5.1 planoak ("Indarreko hirigintzako planeamendua, aurreikusitakoa eta/edo tramitatzen ari dena. 3. tartea. Urbi ibaia, 02/04 orrian").

Erantzuna:

1. puntuari: UPSaren Memorian adierazita dagoen bezala (7.1.4 idatz-zatia. Uholde arriskua), Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Nafarroako ibaien uholde arriskuari buruzko hainbat azterlan egin du. UPS honen jarduera eremuaren barnean, eskuragarri daudenak aztertu dira (Arga, Ultzama, Elortz eta Sadar), baina Urbi ibaiarena ez dago eskuragarri.

2 puntuari: puntu horretan eskatzen denari dagokionez Herri Lan Departamentuak arlo horri buruz zehazten duenari jarraituko zaio.

3 puntuari: Ollokilanda-Urbi aldearen gaur egungo kalifikazioa mantentzeak ez du esan nahi UPSaren helburuen aurka egiten denik, eta ez zaio kalterik egiten ibai parkearen garapenari. Beraz, alegazioa onestea proposatzen da (erantsitako planoetan aldatuko dira, behin betiko onepenerako).

4 puntuari: errorea zein planotan ikusi den, plano hori aldatu da, eta plano horretan Eguesko Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Ereduaren azpiegitura ere grafiatu da.

11. Javier Borda jauna, Esteribarko Udalaren ordezkari gisa.

Laburpena:

Esteribarko Udalak honako hau adierazten du: Plan Sektorialean "(ibai) parkearen jarduketa-eremua inbadituko luketen etxola bat eta itxitura batzuk eraistea eta berreraikitzea aurreikusten da".

Hala ere, udalerrian 1993ko abenduaren 1etik indarrean dauden Arau Subsidiarioen Hirigintzako Araudiaren arabera, "Esteribarko mugape osoan erabat debekatuta geratzen dira baratzezaintzari sostengu emateko eraikin guztiak", eta zera zehazten da: "mota horretako eraikin guztiak, 'aisia denborako baratzeak' kontzeptu orokorraren barnean sartzen direnak, haietariko batzuk Arau hauek onetsi baino lehen eraikitako benetako etxebizitzak direnak, antolamenduz kanpo geratzen dira", eta kontzeptu horren barnean sartzen dira "bere garaian aplikatzen ahal zen legediaren babespean eraiki ziren eta gaur egun lurzoru urbanizaezinaren babes araubidea urratzen duten bizitegirako eraikinak". Azkenik, garai horretan indarrean zegoen legediaren arabera eraikin horietan egiten ahal diren jarduketak agertzen dira, eta honako aukera hau ere azaltzen da: salbuespenezko kasuetan "unean uneko finkatze obra partzialak baimentzea, obra horiek egin nahi diren unetik hamabost urtera finka desjabetu edo eraistea aurreikusita ez badago".

Ondorioz, Esteribarko Udalak "UPSean aurreikusten diren etxolak birjartzea" bidezkoa izan ez dadila eskatzen du, eta Esteribarko esparruari dagokionez UPSaren Araudia alda dadila ere bai.

Erantzuna:

Esteribarko Udalak aldatzeko eskatzen duen Araudia UPSak definitzen eta mugatzen duen esparruari aplikatzen ahalko litzaioke. Horrela, UPSa onetsi ondoren, esparru horretan ezin izanen litzateke jada aplikatu indarreko Arau Subsidiarioen Hirigintzako Araudia.

UPSerako proposatzen den Araudiaren 9. artikulua -"Antolamenduz kanpoko eraikinak"- honako hau zehazten du:

1. Plan Sektorial hau onetsi baino lehen eraiki ziren eta Plan horrekin bat ez datozen eraikin eta instalazioak, antolamenduz kanpoko gisa sailkatzen dira.

Eraikin edo instalazio horietan ezin izanen da egin ez finkatzeko, ez bolumena handitzeko, ez modernizatzeko edo desjabetze-balioa igotzeko obrarik, ezta bestelakorik ere.

2. Ibaiaren ertzetik 5 m baino gutxiagora dauden finken itxiturak antolamenduz kanpo daude.

3. Dagokion ibilguaren paraleloan dagoen 5 metroko zerrenda -ibaiaren ertzetik neurtuta- osorik edo zati batean inbaditzen duten eraikin guztiak antolamenduz kanpo egonen dira.

4. Antolamenduz kanpoko sailkapenetik salbuesten dira ur politikari edo komunikazio-sistemari buruzko eraikin eta instalazioak (banaketa-uhateak, harguneetarako obrak, ubideak, aforo-estazioak, ontziralekuak, zubiak, pasabideak, ibai bazterrak babesteko obrak ...).

Beste alde batetik, UPSerako proposatzen den Araudiaren 26. artikuluan eta hurrengoetan, Ibai Parkearen eremuan aurreikusten diren eraikin motak (Kioskoak, zerbitzueta eraikinak, pergolak eta terrazak) eta Parkea osatzen duten espazio, eremu edo guneetan baimentzen ahal diren eraikuntza-jarduerak arautzen dira, horiek guztiak Ibai Parkeari lotutako erabileren arabera.

Aurreko arauketa kontuan hartuta honako hau adierazi behar da:

a) Dagokion ibilguaren paraleloan dagoen 5 metroko zerrenda -ibaiaren ertzetik neurtuta- osorik edo zati batean inbaditzen duten eraikin guztiak antolamenduz kanpo daudela adieraztean ez dagoela inolako zalantzarik.

b) UPSaren Araudiak "Plan Sektorial hau onetsi baino lehen eraiki ziren eta plan horrekin bat ez datozen eraikin eta instalazioak, antolamenduz kanpoko gisa sailkatzen direla" zehazten duenean, ulertu behar da "bat ez etortze" horrek UPSerako proposatzen den Araudiak arautzen dituen eraikin, jarduera eta erabilera motak betetzen ez dituzten edo horiekin parekatu ezin diren eraikin, instalazio eta jarduera guztiak barnean hartzen dituela. Hau da, UPSaren eremuan eraikin guztiak parkeari lotutako erabileretarako erabili beharko dira, eta lotura hori ez duten eraikinak edo lotura horrekin bat ez datozen erabilerak dituzten eraikinak antolamenduz kanpo egonen dira.

Beraz, artikulua horietan eta UPSaren Araudiko gainerako artikuluetan -Araudi horrek bere eremuan eragiten du eta ez beste inon ere- ez da planteatzen antolamenduz kanpo dauden etxolak berreraiki edo birjartzea, Esteribarko Udalak bere alegazioan adierazten duen bezala. Beraz, alegazioa ezetsi behar da.

12. Francisco Xavier Berruezo Gambarte jauna, Electra Valdizarbe enpresako kontseilari delegatua den aldetik.

Laburpena:

-Electra Valdizarbe Arakil ibaiaren uren aprobetxamendu baten, urak Etxauriko zentral elektrikora bideratzen dituen ubide baten eta Zentral horren beraren titularra da (alegazioarekin batera Ebroko Ur Konfederazioak aprobetxamendu hidroeletrikorako emandako kontzesioa egiaztatzeko dokumentua doa).

-Jabeak Iruñerriko Ibai Parkea handitzeko Udalez gaindiko Plan Sektorialaren trazaduraren berri izan du modu ez-ofizialean, eta zera nabarmendu nahi du: aipatu Planaren Memorian aipatzen da pasealekuaren trazadura Etxauriko zentral elektrikoa elikatzen duen ubidearen paraleloan doala 700 m-ko ibilbidean, eta lehendik dagoen pasabide batetik zeharkatzen duela.

-Alegatzailearen iritziz ibai pasealekuak, ubidearen ondoan egonda, hainbat ukipen sortuko du ubide horretan. Eraikitzen den bitartean, makina astunek ubidearen osotasunaren eta bertan dagoen pasabidearen gainean izanen dituzten ondorioengatik. Halaber, pasealekua erabiltzen den bitartean ere ukipenak jasanen ditu, eta bertatik igaroko diren pertsonen kopuruak gora egingen duenez ubidearen inguruan istripuak gertatzen ahal dira.

-Ibai ondoko pasealeku batek ibaiaren ertzetik igaro behar du, ibaiaren natur arloko ezaugarri bereziengatik, eta ez izaera hidrauliko hutseko egitura baten ondotik.

Azaldutako guztiarengatik, Electra Valdizarbe enpresak Iruñerriko Ibai Parkearen Udalez gaindiko Plan Sektoriala aldatzeko eskatzen du, Etxauriko zentral elektrikoa elikatzen duen ubidearen

paraleloan dagoen bidean aurreikusita dagoen trazadurari dagokionez, eta ibaitik hurbil dagoen beste gunek batetik igaro dadila eskatzen du.

Erantzuna:

Ibai Parkea handitzeko UPSa Etxauriko Udalean erakusgai egon da jendaurrean agertzeko aldian, Plan Sektoriala onesteko prozeduran hala baitago ezarrita. Jabeak eskatuta, Planaren sustatzaileak bilera batzuk izan ditu "in-situ" interesdunekin, ubideari dagozkion alderdiak zehazteko, Parkea handitzeko pasealekua ubide horren ondoan egiten dela baitago aurreikusita. Bilera horietan jabeak Planari buruz eskatu dituen alderdi guztiak azaldu dira, eta eskatu dituen dokumentu guztiak eman dira.

Aurreikusita dagoen pasealekua bide publiko batetik igaroko da, Etxauriko Udalaren jabetzako bidea, hain zuzen ere. Bide horrek lehendik dauden zortasun guztiak mantenduko ditu (nekazaritzakoa, ubideko azpiegiturak mantentzekoa, zerbitzuak mantentzekoa ...), Etxauriko Udalak egindako alegazioen erantzunean esplizituki azaldu den bezala. Bide hori eteten ahalko da ubidearen mantentze-lanetarako beharrezkoa denean, baldin eta Etxauriko Udalarekin eta parkea kudeatzen duen entitatearekin koordinatuta egiten bada, eta ibilbide alternatibo bat azaltzen bada.

Ibai Parkea handitzeko diseinuan, alde batetik ibaien ertzetik (kasu honetan Arga eta Arakil) ibiliko den pasealeku baten interesak eta bestetik lurzoru pribatuen ukipen eta okupazioak bateratu dira. Kasu honetan, lehendik dagoen Ibero eta Etxauri herrien arteko bide publiko baten aprobetxamendua lehenetsi da, horri esker herri horiek oso distantzia laburrean lotzen ahalko baitira, inguru naturalean ondorioz txikiak sortuz.

Mankomunitateak, halaber, jakinarazi du neurri batzuk aurreikusi direla Planaren exekuzioaren ondorioz sortzen ahal diren arazo guztiak konpontzeko, jabeek adierazi dituzten kezkek kontuan hartuta. Neurri horiek eraikuntza proiektuetan ezarriko dira, jabeek alegatu dituzten arriskuak murrizteko. Hona hemen neurriak:

-Ubideko ezpondaren oinarrian atzeraemanda dagoen pasealekua ahalik eta ukipen txikiena egiteko moduan diseinatuko da. Lehendik dagoen landarediaren zati bat kontserbatuz, gaur egungo bidean aurreikusita dagoen pasealekua ubidetik isolatuko da.

-Lehendik dagoen bidea konponduko da, besterik ez. Zoladuraren ezaugarriak mantenduko dira, obrek gaur egungo ubidearen egitura arriskurik sor ez dezaten.

-Proiektuan zubia indartzea sartuko da, zubi horren gainetik igarotzeko baldintzak hobeak izan daitezen.

-Etorkizuneko pasealekua ubidetik hobeto isolatzeko, tartearen luzera osoan hesia jarriko da, ibai ondoko pasealeku bihurtutako bide publikoaren segurtasuna indartzeko.

II.-"Iruñerriko Ibai Parkea handitzeko Plana" Udalez gaindiko Plan Sektorial deklaratzeko duen Nafarroako Gobernuaren 2009ko maiatzaren 18ko Erabakiaren determinazioak betetzea.

A) Aipatu erabakiaren xedapen zatiaren 2. puntuak hau zehazten du: "Iruñerriko Mankomunitateari adieraztea espediente ebatzi baino lehen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak UPSari buruzko txostena egin beharko duela, Planaren sustapen eta kudeaketari buruz antzemandako kontraesanak argitu beharko direla eta, bidezkoa bada, Araudiaren 3. artikuluan -

"Administrazio Jardulea"- zerrendatzen diren entitateek Ibai Parkearen kudeaketa eta exekuzioan parte hartu izana egiaztatu beharko dela.

A.1. Herri Lan Departamentuaren txostena.

2009ko uztailaren 21ean, Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak txostena egin zuen, eta UPSari buruz hainbat determinazio ezarri zuen.

a) Trenbide azpiegiturei dagokienez: proiektuko Ibai Parkearen Pasealekuak Abiadura Handiko Trenaren eskualdeko Trazadura bost lekutan zeharkatzen du. Ondorioz, Mankomunitateak Sustapen Ministerioko Trenbide Zuzendaritza Nagusiari eskatu beharko dio bidezkoa den baimena.

Horri buruz zera adierazi behar da: 2009ko abuztuaren 18an, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Zuzendaritza Nagusian "Ipar-Ekialdeko Abiadura Handiko Trenbide Korridorearen eraikuntza proiektuaren sintesi-memoria. Iruñerriko trenbide sare berria: Trenbidearen kizkurgunea kentzea. Plataforma" izeneko dokumentua sartu zen. Proiektu horri esker Ibai Parkeak AHTaren trazadura lehen esandako bost puntuetako lautan zein egoeratan zeharkatu duen aztertzen ahal da. Bada, AHT ibaien gainetik igarotzeko proiektuan agertzen diren zubi eta bidezubiek Ibai Parkea haien azpitik modu zabal eta erosoan igarotzeko moduko ezaugarriak dituzte, Elortz ibaiaren gainean aurreikusita dagoen pasagunearen kasuan izan ezik, AHT A-15aren "pergolaren" azpitik - hain zuzen ere gaur egungo trenbidea igarotzen den lekutik- igaroko litzatekeelako: pasagune hori berriro aztertu behar da, leku horretan baliteke-eta AHTren ibilbideak pasealekua etetea, antza denez ibilbide horren azpian ez dagoelako pasealekuaren jarraitutasuna ahalbidetzeko altuera nahikorik.

Bosgarren bidegurutzea AHT Getze-Galarretik hurbil Elortz ibaiaren gainetik igarotzen deneko lekua da. Onetsitako Iruñerriko Trenbideen Sare Berriari buruzko Informazio Azterlanaren arabera, pasabide hori 88 m-ko luzera eta ibaiaren gainean 6 metroko altuera librekoa duen zubi batekin konpontzen da.

b) Nafarroako Errepideei buruzko 5/2007 Foru Legeari eta aplikatzen ahal diren gainerako xedapenei buruz: epigrafe horri buruzko determinazioen artean nabarmentzekoa da honako hau: pasealekuak interes orokorreko errepideak nahiz Foru Komunitatearen intereseko errepideak - egun bakoitzeko 2.500 ibilgailuko edo gutxiagoko IMDarekin- zeharkatzen dituen lekuetan, ez da onartuko oinezkoentzako pasabiderik. Hortaz, gainerako edo azpiko pasabideak eraiki beharko dira.

Gainerako determinazioak honako hauei buruzkoak dira: bideetatik eta Ibai Parkeko pasealekutik errepideetarako sarbideak jartzeko modua; errepideetara sartzeko tartearen eraikuntza-ezaugarriak eta horren seinaleztapena; errepideen seinaleztapena aipatu bideekin eta pasealekuarekin dituzten gurutzaguneetan; Errepide Sareko bideetako babes-guneak, eraikuntza-lerroak eta publizitatearen debeku-gunea; itxitura, heskai eta landare-hesi, kanalizazio eta kutxatilen kokaera eta ezaugarriak; aparkalekuak jarriko direnoko distantzia; eta kasuan kasuko exekuzio-proiektuetan bete beharko diren baldintzak nahiz obrek ekartzen dituzten gastuak, mantentze-lanetakoak barne, sustatzailearen kargupekoak izanen direnak.

Horrenbestez, Parkea exekutatzeke egiten diren eraikuntza-proiektuen artean errepide sareari eragiten diotenak Herri Lan Departamentuan aurkeztu beharko dira obrak exekutatu baino lehen, obra horietarako baimena eman ahal izateko.

A.2. Planaren sustapen eta kudeaketari buruz ikusi diren kontraesanak argitzeko eta, bidezkoa bada, Araudiaren 3. artikuluan -"Administrazio Jardulea"- zerrendatzen diren entitateek Ibai Parkearen kudeaketa eta exekuzioan parte hartu izana egiaztatzeko beharrianari buruz, Mankomunitatearen erantzuna honako hau da:

"Administrazio jardulea Iruñerriko Mankomunitatea da, testuaren 5. kapituluaren (Ibai Parkearen Sustatzailea) adierazten den bezala. 10.4.3 epigrafean (Jarduketa Sistema) Nafarroako Gobernua aipatzea akats baten ondorioa da; hortaz, aipamen hori Testutik kendu behar da. Paragrafo horretan bertan Udalak aipatzen dira. Aipamen hori ere kentzea gomendagarria da nahasmenak saihesteko, baina hala azaldu da Mankomunitatea interesa duten eta hala erabaki duten edo etorkizunean hala erabakiko duten Udal guztiak batzeko entitatea dela agerrarazi nahi izan delako".

Hizpide den determinazioak aipatzen dituen kontraesanak argitu ondoren, beraz, bidezkoa izanen da dokumentuaren Memorian eta Araudiaren 3. artikuluan -"Administrazio Jardulea"- egokiak diren zuzenketak egitea.

B) Aipatu Erabakiaren xedapen zatiaren 3. puntuan ondokoa zehazten da: espedientearen amaierako ebazpenarekin erabakiko da Zolina/Ezkorizko aintzira eta bere ingurunea UPSetik kanpo geratzen diren ala ez. Eta Zolina/Ezkorizko aintzira eta bere ingurunea UPSaren barnean geratzen badira, bidezkotzat jotzen da aintziraren inguruari ematen zaion "berdegune" kalifikazioa berrikustea, erabaki honen azalpen zatian azaldu den bezala.

Determinazio hori Aranguren ibarreko Udalaren 5. zenbakidun alegazioari emandako erantzunean eta Posusaren 6. zenbakidun alegazioari emandakoan egiten diren proposamenekin konpontzen da.

III.-Beste datu eta gogoeta batzuk.

III.1. Mankomunitateak espedientearen Ebroko Ur Konfederazioaren 2009ko irailaren 2ko Ebazpena txertatu du. Ebazpen horretan UPSean agertzen diren jardueren aldeko txostena ematen da, ur jabari publikoaren eta korronteen erregimenaren babesari -jarduera horiek bete beharko dituzten aurreikuspen batzuk ezarrita- nahiz ur eskari berriei dagokienez.

III.2. Halaber, espedientearen Ondare Historikoaren Zerbitzuaren txosten bat agertzen da. Txosten horrek dioenez, planaren ezaugarriak aztertutakoan ez da ikusi ondare arkeologikoaren gaineko eraginik dagoenik, planean aurreikusita dauden obrek zorupea oso gutxi ukituko dutelako, eta planaren eraginpean dauden guneeetan ez dago Nafarroako Inbentario Arkeologikoan katalogatutako ondasunik.

III.3. Hirigintzako Araudiari buruz.

UPSaren Araudiari dagokionez, Mankomunitateak artikulua jakin batzuk zuzentzea proposatu du. Artikulu horiek geroago aipatuko dira.

Honako hau kontuan hartu da: UPSaren Araudiaren 11. artikuluan arabera "UPSaren eremu osoa sistema orokortzat hartuko da"; "erabilera eta titulartasun publikoko dotazioa da, administrazioak zuzenean kudeatzen duena, eta jolasetarako erabili beharrekoa"; eta aldi berean "espazio libre publikoetako zatia" da. Hortaz, uste da UPSaren eremuaren barnean dauden lurzoru

urbanizaezinak "babestu beharreko lurzoru urbanizaezin" gisa kategorizatu beharko liratekeela, lurzoru horietako batzuk (Done Jakue Bidea, altxonbideak, ur publikoak, udal planeamendutik sortutako lurzoru urbanizaezin babestuak, interes kultureko ondasun deklaraturako lurzoruak, edo bestelakoak) jada babestuta daudela eta beren erabilera eta babes araubide propioak dituztela kontuan hartu gabe. Horrenbestez, lurzoru horiek Ibai Parkeko zati -eta horregatik UPSren eremuko zati- izateagatik babesten diren beste lurzoruei gainjartzen zaizkie.

Aurreko gogoeta oinarri hartuta, bidezkoa litzateke UPSerako proposatzen den Araudia zati batean erraztea.

Araudiari buruzko argibideak eta antzemandako akats materialak eta kontraesanak:

12. artikulua: ezarritako erabileretatik salbuesten ahal dira Done Jakue Bidea eta abelbideak, ez baitira UPSak ezarritako erabilerak, lehendik dauden erabilera aintzatetsiak baizik -errepideak bezala-, berezko babes araubidearekin. Hain zuzen ere, babes araubide hori bete beharko da.

"Ibilbide interesgarriari" -Iratiko trenbidea- buruz, "Iratiko bide" gisa mantentzen ahal dela uste da. Babes araubidea -41. artikulua- azaldu egin beharko litzateke, baina existitzen ez den foru dekretu bat aipatu gabe (horri buruz erreferentzia gisa har liteke Plazaola Turismo Partzuergoak sustatutako "Plazaolaren trazadura zaharra Iruña-Irurtzun tartean lehengoratzeko UPSerako" proposatzen den araubidea).

13. artikulua -"Erabileren bateragarritasun taula"- eta 38. artikulua -"Jostetaguneak"- artean dauden kontraesanak: bigarren artikuluan, "babes eremuetan" -a) gunea edo ibilguaren paraleloa den zerrenda, gune bakoitzean neurtuta ibaiaren zabalera bera duena- onartzen diren eraikuntza-jarduerak "mintegiak eta berotegiak eta hegazti hazkuntzako instalazioak" dira, eta jarduera baimengarriak "arrain-haztegiak". Jarduera horiek ez dira agertzen 13. artikuluan, eta ez dira Ibai Parkearen erabilera eta helburuaren berezko jarduerak -arrain-haztegiak izan ezik, halakorik egonez gero-, Parkea sortu den bezala sortuta (ikusi, gainera, 34. eta 35. artikulua, "Ibai parkeko zidorra" eta "Ibai parkeko pasealekua").

13. artikulua -"Erabileren bateragarritasun taula"- eta 37. artikulua -"Ibai Ingurumenaren Integrazio gunea"- arteko kontraesanak: kasu honetan, 13. artikuluan erabilera onartuen artean "aisialdiko baratzeak" eta "lehendik dauden nekazaritza erabilerak" agertzen dira; erabilera horiek ez dira agertzen 37. artikuluan eta, era berean, ez datoz bat -bereziki lehenengo erabilerak- parkearen erabilera eta xedearekin (ikusi, gainera, 34. eta 35. artikulua, "Ibai parkeko zidorra" eta "Ibai parkeko pasealekua").

13. artikulua eta 19.aren arteko kontraesanak: lehenengo artikuluan Urbanizazio Proiektua plana garatzeko tresnetatik baztertzen da, eta bigarrenean Urbanizazio Proiektua kontuan hartzen da.

Memoriako 10.4.3 puntuaren eta 16. artikulua arteko kontraesanak: uste da Jarduketa Sistema 16. artikuluan aztertzen dena dela, ez Memorian aipatzen dena.

19. eta 20. artikulua, "Urbanizazio Proiektuak" eta "Oinezkoentzako Bideak": uste da bi artikulua artikulua bakar batean bateratzen ahal direla, Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko Foru Legeari dagokionez trazadura berriek (19. artikulua) edo oinezkoentzako bide berriek (20. artikulua) bete behar dituzten baldintzei buruzkoak direlako. Horri dagokionez onargarritzat jotzen

da Mankomunitateak ibilbideen sailkapenari buruz egindako proposamena, kontuan hartzen delako ibai pasealekuaren gutxieneko zabalerak 2 metrokoa izan behar duela, "tarte -gutxi- batzuetan - Mankomunitateak dioenez- plataforma handiagoak proiektuaren xedearekin bateraezinak diren ukipenak sortzen baititu".

Mankomunitateak, era berean, 21., 24. eta 25. artikulua -"Ibilgailuetarako nahiz oinezkoentzako bidea", "Ibai pasealekuaren dimentsioa" ("Gutxienez 2 metroko zabalerak") eta "Ibai ertzeko zidorraren dimentsioak" ("gehienez 2 metroko zabalerak"), hurrenez hurren- aldatzea planteatzen du, eta aldaketa guztiak egokiak direla uste da. Hala ere, eta agerikoa den arren, ibai parkearen bidea erabiltzen ahalko duten ibilgailuen artean -Mankomunitateak proposatutako 21. artikulua berriaren 2. puntuan adierazten direnak- "anbulantziak edo babes zibileko beste ibilgailu batzuk" sartu beharko lirateke.

30. artikulua. "Lurzoru urbanizaezinaren kategoriak": lehenengo iruzkinean azaltzen denarekin bat etorritik, artikulua hori kendu beharko litzatekeela uste da.

33. artikulua, "Aurreikusitako azpiegiturak": artikulua hori kendu beharko litzatekeela uste da. Ibai Parkea, azpiegitura baino gehiago, "dotazioa" da. Dotazio horren barnean mota askotariko gune eta azpiegiturak daude, eta gune eta azpiegitura horien erabilera eta babes araubidea VI. kapituluaren ezartzen da. Hain zuzen ere, artikulua hau eta beste batzuk kapitulu horretan agertzen dira (bestalde, kategoria hau gaur egun indargabeturik dagoen Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/94 Foru Legearen aurrekustean zen).

40. eta 42. artikulua, "Done Jakue Bidea" eta "Altzonbideak", mantentzen ahal dira, baina aplikatzen ahal diren lege aipamenak zuzendu eta eguneratu beharko dira.

IV.-Ingurumen eraginaren adierazpena.

Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren otsailaren 26ko 0426/2010 Ebazpenaren bitartez, Iruñerriko Mankomunitateak sustatzen duen "Iruñerriko Ibai Parkea handitzeko Udalez gaindikoa Plan Sektorialari" (UPSari) buruz Ingurumen ondorioen adierazpena egin zen.

Ebazpen horren bigarren puntuak zehazten duenez, Proiektua egiteko baldintza batzuk bete beharko dira: baldintza batzuek parkearen berezko ingurumen-fisnomiari dagozkio, beste batzuk gomendio gisakoak dira, eta beste batzuek ibai parkearen trazaduraren nahitaezko aldaketak ekartzen dituzte; horien artean nabarmentzekoak dira honako hauek, lurzoruen jabe berriei eragiten baitiete:

6. tartean (Arga Beherea):

"Zabaltzan (La Torna alderdia) ingurumenaren ikuspuntutik egokiagotzat jotzen da meandroaren ibilbidea laburtzea, P28 eta P29 pasabideak ahalik eta modu zuzenean lotzea, lurzatiaren mugetan zehar, eta zuhaixkak landatzeko lur-zerrenda bat diseinatzea. Horrela, 2,33 urteko birgertatze-aldian urak har dezakeen tartea saihestea lortzen da, eta gainera, bi ibaiertzetan irisgarritasuna murriztea (modu horretan ibaiertzeko bat faunarentzat babesleku izan dadin) eta ibilbide laburragoa sortzea, herrien artean komunikazioa hobetzeko, oinez zein bizikletaz. Pasabideak kokatzeko leku zehatzak erabakitzeak, gune horretako ur etorri arruntak kontuan hartuko dira".

Baldintza hori ez da azaltzen modu eztaba daezinean, baina proposamen egokia dela uste da. Izan ere, pasealekuak meandro horretan ez dio jarraitzen ibaiaren ibilguari, baina kontuan hartu behar da herriguneen arteko "konektore" funtzioa esleitzen zaiola; bada, modu horretan funtzio hori hobeto betetzen du. Hala ere, proposamen hori jendaurrean agertu beharko litzatekeela uste da, xedea mugatua izan arren bere inguru geografiko zehatzaren barnean pasealekuaren aldaketa "nabarmena" delako, eta lurzoruen jabe berriei eraginien liekeelako.

Ingurumen eraginaren adierazpenak ezartzen duenez, azkenik, "Ibai Parkearen UPSetik ateratzen den proiektua Ingurumen Kalitatearen Zerbitzura igorri beharko da, Ingurumen ondorioen adierazpen honetan ezarri diren baldintzak betetzen dituen aztertzeko". Bidezkoa da baldintza hori erabaki honetan agertzea.

Horrenbestez, Lurraldearen Antolamenduko Batzordearen txostenarekin bat, eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeari eta aplikatu beharreko gainerako arauak jarraikiz, Nafarroako Gobernuak, Lurraldearen Antolamenduko eta Etxebizitzako kontseilariak proposaturik,

ERABAKI DU:

1. Aurkeztu diren alegazioak ebaztea erabaki honen azalpen zatian agertu den moduan.
2. Iruñerriko Mankomunitateak sustatzen duen "Iruñerriko Ibai Parkea handitzeko Udalez gaindiko Plan Sektoriala" onestea, honako determinazio honekin:

-UPSean alegazioen ebazpenen ondoriozko zuzenketak sartuko dira; erabaki honen azalpen zatiaren III.3 epigrafean Hirigintzako Araudiari buruz agertzen direnak; eta Ingurumen eraginaren adierazpenaren ondoriozkoak ere bai.

3. UPSa garatzean egiten diren exekuzio-proiektuetan, eta dagozkion obrak egitean, Ingurumen eraginaren adierazpenak dioena beteko da.

Exekuzio proiektu horiek Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuan aurkeztu beharko dira, obrak hasi baino lehen, Ingurumen ondorioen adierazpenean ezarri diren baldintzak betetzen diren aztertzeko.

Halaber, ibai parkearen exekuzio proiektuek Ebroko Ur Konfederazioaren 2009ko irailaren 2ko Ebazpenean ezartzen diren aurreikuspenak bete beharko dituzte.

Abiadura Handiko Trenaren Iruñerriko Trazadurari eragiten dioten obren exekuzio proiektuak Sustapen Ministerioko Trenbide Zuzendaritza Nagusian aurkeztu beharko dira, obrak exekutatzen hasi baino lehen, bidezkoa bada obrei baimena eman ahal izateko.

Nafarroako errepideei eragiten dioten obren exekuzio proiektuek Herri Lan Departamentuak ezartzen dituen determinazioak bete beharko dituzte, eta Departamentu horretan aurkeztu beharko dira obrak exekutatu baino lehen, bidezkoa bada obrei baimena eman ahal izateko.

4. Nolanahi ere, obren exekuzioa baldintzatzen duten edo ukituta gelditzen diren beste azpiegitura eta zortasunei dagokienez, Mankomunitateak, sustatzailea den aldetik, behar diren baimen guztiak lortuko ditu kasuan kasuko gaian eskudun diren erakundeetatik.

5. Jendaurrean agerraraztea IEAn planteatzen den proposamena, hau da, Zabaltzako udal mugapeko La Torna alderdian Arga ibaiaren meandroaren paraleloan igarotzen den pasealekuaren ibilbidea laburtzea eta P28 eta P29 pasabideak ahalik eta modu zuzenenean lotzea, lurzatiei mugetan zehar, eta zuhaixkak landatzeko lur-zerrenda bat diseinatzea. Horretarako, Mankomunitateak proposamen hori azaltzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

6. "Zolinako Hiri Bioklimatikoaren Plana" delakoari buruzko espedientea artxibatzea eta horri buruzko jarduketak guztiak amaituta daudela adieraztea.

7. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Herri Lan Zuzendaritza Nagusiari, Kultur Ondarearen Zuzendaritza Nagusiari eta Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusiari igortzea.

8. Erabaki hau jakinaraztea Ebroko Ur Konfederazioari, Namainsa enpresa publikoari, Odieta, Olaibar, Ezkabarte, Esteribar, Eguesibar, Uharte, Aranguren, Noain (Elortzibar), Beriain, Galar Zendea, Zizur Zendea, Iruña, Zizur Nagusia, Barañain, Oltza, Etxauri, Ziritza, Zabaltza, Etxarri eta Bidaurretako Udalei, Iruñerriko Mankomunitateari eta alegatzaileei jakinaraztea, behar diren ondorioak izan ditzan, eta adieraztea, halaber, erabaki honek administrazio bidea amaitu duela eta beraren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal dela, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, erabakia argitaratu eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Nolanahi ere, administrazio publikoek aurretiazko errekerimendua egiten ahalko diote Nafarroako Gobernuari, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an.-Nafarroako Gobernuko kontseilari eta idazkaria, Javier Caballero Martínez.

Iragarkiaren kodea: F1005869